

# Bero-beroan

## Aranguren, Galar eta Beriain

BADIRUDI LORTUKO DUTELA. Alegia, eremu ez euskaldunetik mistora pasako direla. Kulebroia luze doa. Joan den asteko Nafarroako Parlamentuko bozketa hirugarrena zen. Lehenengo saiakeran ez zuen aurrera egin IU-NEBren proposamenak NaBaiko Txentxo Jimenezzen bozka falta izan zelako. Bigarren saiakeran PSNk aurkako botoa eman zuen. Hirugarren honetan, PSN, eta baita CDN ere, baiezko botoa ematekoak ziren. UPNk laster ohartarazi zion ordea CDNri, UPNk bezala bozkatzeko ez bazuen gobernu itunean eragina izango zuela. Azkenean, CDN abstenitu

egin da. IU-NEBk bederatziz herrirentzako eskatu zuen eremu aldaketa. PSNk garbi utzi du Aranguren, Galar, Beriain eta Noain herriei baino ez diela aukera emango eremuz aldatzeko. Eta alderdi horrek jarritako baldintza garrantzitsua ezin ahaztu: herri horietako udalek onartu behar dute eremuz aldatzea. Badakigu Noainek ia aukerarik ez duela horretarako, UPNk gehienagotzen baitu udal horretan.

## Euskara 21 onartu dute

EUSKARA 21 plana, aurreko gobernuak prestatutako plana, EPSE-EE, EAJ, PP eta EB alderdien botoekin onartu da. EAK helegitea jarri zuen esanez Jaurlaritza beharturik dagoela

Osakidetzan euskaraz zein gaztelaniaz artatuak izateko eskubidea bermatzera. Helegitea ez da onartua izan.

## Saroi: akats sintaktikoak zuzentzeko tresna

MAITE ORONoz EHUko ikerlariak sortu du Saroi izeneko tresna. Euskarazko akats sintaktikoak aurkitu eta zuzentzeko dauden tresnen analisia egin du doktore-tesian eta horretarako tresna egokirik aurkitu ez duenez bere sistema sortu du. Errore sintaktikoen tratamendua egiten du eta analisi-zuhaitzen egituraren gaineko kontsultak egiteko eta zuhaitz horietan egitura linguistikokoak bilatzeko ere balio du.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

## BAHEA

## TALAIAN

### Nahikoa litzateke iruzur fiskala ezabatzea

Espainiako Estatuko Gobernu eta Administrazio publiko guztiak eztabaidatzen ari dira ea zer egin behar den krisiak herritarrei ekarri dizkien arazoei aurre egiteko. Batzuek eta besteek zergak igotzeaz hitz egin dute. Badago ustezko ezkerretik, PSOEko Gobernuaren kasuan esaterako, zunda-globoak bidaltzen dituenik, egiaz ezkerreko politika sozioekonomikoa dutela sinestarazteko. Horretarako, aho txikiarekin, mezua bidaltzen dute esanez zergak igo "beharko" litzazkiekeela botere ekonomiko handiagoa duten klaseei, nahiz eta jakina den hortik ez direla pasako. Enpresen etekinei dagokion Elkarleen gaineko zergarekin demostratu dute hori, aldiari aldiro jaitzi egin baitute; ondarearen gaineko zerga ezabatuz demostratu dute hori; errenta altuetako PFEZarekin demostratu dute hori; eta batez ere, errenta altu horietan dagoen iruzur fiskal izugarria ez moztearekin demostratu dute hori.

EAEn gertatzen ari dena adierazgarria da guztiz. Nahikoa da irakurtzea 2007ko Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratua. Datu horien arabera, langileek aktibitate ekonomikoak deklaratzeko dituztenek baino 8.150 euro gordin gehiago deklaratu zituzten sarreratan 2006 urtean. Langileek, batzaz beste, 20.642,75 euroko errendimendua deklaratu zuten eta aktibitate ekonomikoengatik zergak ordaindu zituztenek 12.491,89 euroko sarrerak deklaratu zituzten. Eta hori da urte hauetako guztietako joera orokorra. Nahikoa litzateke iruzur fiskal nabarmen hori moztea, krisiaren ondorio sozialei aurre egiteko. Eta agintariak badakite non dagoen iruzur hori, hau da, profesional liberalen artean: bankariak, finantza txiringitoak, medikuak, dentistak, notarioak, abokatuak, ingeniariak, arkitektoak, aholkularitza enpresak... eta abar, eta abar.

*Juan Mari Arregi*

Rafael Bengoa Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo sailburuak *Berriain* esanak Osakidetzako euskalduntzeko planaz: "Hori interesgarria da, nire ustez egungo euskara plan handinahitsuenetako bat zelako, eta diru gehien eskatzen duenetako bat, nik dakidala. Eta horrela izan behar du! Dena den, ez dut uste esan daitekeenik zerbait mantsoa dela, baldin eta arazo sakonak eragiten baditu giza baliabideetan".

Jean Pierre Massias, Baionako Unibertsitateko ikerlariak *Garan* esanak: "Frantses estatua bi hormaren artean harrapatuta dago. Alde batetik, tradizio jakobino azkar bat dauka, eta, bestalde, eskualdeetan nortasun azkarrak ditu. Eskualdeak Europako erreallitatean oso barnatuak dira. Egoera horrek kontraesanak sortzen ditu Estatuaren jarreran. Ofizialki hizkuntza gutxiak ezeztatzen ditu, baina legeak finkatzen ditu".

## Euskal gizartearen segurtasuna zaintzeko 300 polizia balira...

**ESPAINIAKO** gobernuak datorren urterako ekonomiaren berreskurapen iragarpen onak egiten ditu, baina egi zantzu gutxi sumatzen da hor, behintzat dantzan ari diren datu ugariak ikusita. Krisiaren erdigunean egon den nazioarteko finantza ereduaren aldaketa handirik ez da antzematen. Sistemaren giltzarri den kontsumoa handitzeko daturik ez da ikusten: langabeziak gora jarraitzen du eta edonork daki hori ez dela kontsumo pribatua –herritarra– akuilatzeko egoerarik txukunena; eta aurrekontu publikoak behera doaz eta, beraz, kontsumo publikoak –bai, gobernuak guztion izenean gastatzen duten hori– behera egingo duela.

Bitxiena da sistemikotzat hartzen den krisiari, neurri guztiz partzialekin egin nahi zaiola aurre. Ez dirudi egungo sistema kapitalistaren erraiak aztertzeko gogo eta interes handiegirik dagoenik, ez behintzat modu publiko eta zabalean. Ezta Keynesen posizioetaraino iristeko ere. Finantza sisteman egin diren esku-hartze horietara mugatu da nagusiki Keynesen ikuspegia. Egungo sistema kapitalistaren oinarriak zalantzan jartzen dituzten hausnarketak periferian uzten dira: kontsumo gera ezinaren norabide eta ondorioak, produkzio molde zenbaitzuen agortzea, langabeziaren egiturazko arazoa, aberatsklase ertain-txiroen eboluzio eta posizioak... Partxeak beti datoz ondo, baina partxe direla jakitun.

**AUTOEN** sal-erosketa bultzatzen duten gobernuen dirulaguntzak, esate baterako, horixe dira, partxeak. Eta ildo berekoa da Espainiako Gobernuak bultzatzen ari den zer-



gen erreforma, eta denak adierazten du diputazioak ere ezer gutxi mugituko direla zerga kontuetan. Are gutxiago Nafarroako Gobernuak. Espainiako Gobernuaren zerga igoera, gainera, ez da oinarrituko goi mailako errenten igoeran, uda garaian Zapatero presidentek aditzera eman moduan; diru bilketaren igoera, nagusiki PFEZetik jasoko da, Zapateroren 400 euro ospetsuak batez ere zerga horren bidez itzuli izan baitira, eta horren onuradunak PFEZaren erditik beherako mailak izan baitira –behekoenak kopuru hori jasotzen jarraituko ei dute–.

Nahi beste eztabaida daiteke neurri horiez, hainbat ikuspegi erabilita gainera, baina funtsezkoena bere partxe izaera da. Gehien duenak gehien ordain dezala da zerga sistema justuenen filosofia, baina hemen gaur egun hori ez da betetzen. Batetik, zerga sistema ez dagoelako horretara bideratua, gehien dutenen aldekoa delako; baina batez ere zerga sistemari egiten zaion iruzur itzelagatik, eta iruzur hori batez ere gehien dutenek egiten dutelako –Juan Mari Arregik aldameneko orrian dioen bezala–.

Modu askotara egiten da iruzur –ahal duenak eta ahal moduan ere esan liteke–, baina batez ere dirua maneiatzen dutenen aldetik egiten da. Onartua dago milaka milioi euroko iruzurra dagoela –bilioi bat Europako Batasunean–, BEZa dela medio, paradisu fiskalak, kapitalen inbertsiorako dauden elkarten bidez... Baina ez zaio arazoari aurre egin nahi. Eta hori argi ikusten da, esate baterako, zergen gaia segurtasunarekin erkatuz gero, biak oso garrantzitsuak edozein gizarterako.

**SEGURTASUNA** bermatzeko milaka polizia daude, zeresanik ez lau polizia mota dauden Hego Euskal Herrian. Bada, ez dakit zerga ikuskatzaileak berrehunera iritsiko diren. Kopuruek asko diote, baina bataren garrantzia eta bestearena neurtzen duen filosofia ere biziki esanguratsua da: segurtasuna eta herritarren defentsa Estatuak bermatu behar du eta ondo arduratuko da horretaz: armada, polizia, bitarteko pribatuak... Bai, herritarrari molde anitzez erakusten zaio “ez da hil behar, lapurtu, jipoitu...”, baina segurtasunari egiten zaion iruzurra zigortzeko milaka polizia ere badira.

Zerga iruzurrean ez, eta gobernuak nagusiki herritarraren kontzientziaren eremuan uzten dute erantzukizuna eta ez lan gehiegirik eginez gainera: “Ea apurka lortzen dugun herritarra kontzientziatzea eta horrela iruzur fiskala jaisten den”. Irudikatzen duzue hori bera segurtasunaren eremuan? 300 polizia guztira eta gobernuak halako kanpaina eginez: “Ea herritarra kontzientziatuz, apurka delinkuentzi tasak jaiste lortzen den...”. Ba horixe.